

SASKIBALOIA

JOE ARLAUCKAS

ACBko liderrak Araba Pabilioia bisitatuko du gaur. Arratsaldeko 6etan (TVE-2k eskainita), Estudiantes eta Taugresek goi mailako saskibaloia erakutsiko dute, talde biok aste

honetan Europako lehieketetan irabazi ondoren. Partidu honetako nondik-norakoak nahiz Benettonen aurkakoak ere Joe Arlauckasen hitzen bitartez ezagutuko ditugu.

«Estudiantes ez da onena, baina onena bezala jokatzeko ari da»

LUIS KARIOS GARCIA / GASTEIZ

EGUNKARIA.— Ezer prestatzeko astirik ez, eta Benettonen aurkako erakustaldiaren ostean, Estudiantesi aurre egin beharko diozue.


JOE ARLAUCKAS.— Benettonen kontrako garaipena ahaztu samarrik daukagu dagoeneko eta hurrengo arerioan ari gara pentsatzen, Estudiantes alegia. Korac Kopako partidutik ateratako hausnarketa zera da, Europar nahiz ACB Txapelketan, asteazkenean egin genuen modura ihardun beharra daukagula. Estudiantesi buruz, gauza jakina da talde gisa ez dela Espainiako onena, baina onena bezala jokatzeko ari denez, defentsa gogorraz eta Benettonen aurka egin genuen jokoaz baliatu behar dugu.

EGUNKARIA.— Noraino iritsi zaitezke italiarren kontra erakutsi zenuten mentalizazio izugarri hori lagun?

ARLAUCKAS.— Mentalizazioa saski-baloian garrantzitsua bada ere, arazoa da mentalizazio horri partidu bakoitzean eustea benetan zaila dela eta are gehiago baldin eta jokariari nekaturik edo lesionaturik bagabiltza. Kontua da play-offetara gogor iristea, zeren eta Liga bitartean baten bat larri dabilen arren konpontzeko moduko arazoa da, baina play-offetan denok prest egotea ezinbestekoa da.

EGUNKARIA.— Pablo Lasok eta zuk lotura ezin hobea osatzen duzue, ACBko onenetakoa.

ARLAUCKAS.— Nik izan ditudan talde guztietan ederki asko moldatu naiz basearekin: bera da baloia eramaten duena eta nik baloia nahi dut beti. Baina Pablo Espainiako



Joe Arlauckas.

OIALDE

Ni beti moldatu izan naiz oso ondo joko antolatzailearekin, egon naizen talde guztietan; berak eramaten du baloia, eta nik baloia nahi dut beti.

jokalaria bikaienetakoa da. Agian ez du Llorentek edo Solozabalek joko kontrolatzeko duten gaitasuna, baina ziur naiz hemendik hiruzpalau urtetara —esperientzia hartu ondoren— baserik onena izango dela.

EGUNKARIA.— Duela urtebete esan zenidanez, Taugres txapeladun izateko taldea zelakoan zeunden, lesioekin zorte pixkat edukitze-

kotan. Aurten ere, beste horrenbeste, ezta?

ARLAUCKAS.— Edozein talderi gerta dakizkikeen arazoak izaten dira lesioak. Horra, bestela, Joventutek hasieran lesionaturik zituen Ferran, Villacampa edo Moralesen faltagatik pasa zituen larrialdiak. Barcelonari ere gertatu zaio...

EGUNKARIA.— Baina talde erdia lesionaturik izanda ere, Barcelonak irabazten segitzen du.

ARLAUCKAS.— Eta baita galdu ere, duela hilabete inguruko garaian esaterako. Noski, urtebete lesionaturik egonez gero, zaila da irabaztea, baina nik neuk egun orkatilan daukadan ondoeza arinak besterik ez badira lasai ibil gaitzke.

EGUNKARIA.— Benettoni nagusitzeko egin zenuten ahaleginaren ondorioak jasango dituzue Estudiantesen aurka?

ARLAUCKAS.— Zazpi egunetan Barcelona, Benetton eta Estudiantes arerio izango ditugu, baina erritmo hau normala da ACB Txapelketan. Hortaz, gogor jokatzeko jarraitu beharra daukagu, batez ere aurten ordezko jokalarien laguntza garrantzitsuagoa delako.

EGUNKARIA.— Biak aurkari gogorak izatea al da Benetton eta Estudiantesen aurkako partiduen arteko antzekotasun bakarra?

ARLAUCKAS.— Asteazkenean Kukoc, Del Negro eta Iacopini ziren erne zaintzeko gizonak. Baina Estudiantes talde bat denez, guk ere talde modura markatu beharko dugu. Benettonen aurka Kukoc gogor defendatzean zegoen kokka, baina Estudiantesek denetarik du eta Azofra, Winslow, Pinone, Orena eta Herrerosek benetako taldea osatzen dute.

SOSLAIA

Lituaniarra

Joe Arlauckas 26 urte eta 2,05 metroko jokalaria da. Baina zenbaki esanguratsuenak, aurten daramatzen batezbestekoak dira: 21 puntu eta 9 errebote partiduko. Gasteizko zaletuek maite dute, ez diote alde egiten utziko eta agian Barcelonako Joko Olimpikoetan ikustea gustatuko litzaieke. Kontua da Arlauckasen arbasoak lituaniarrek direla eta Arvidas Sabonisek eskaintza publikoa egin diola 1992an Lituaniako selekzioan joka dezan. Baina Arlauckasen ezetza borobila da. «Hiru hilabeteko oporrak ditut eta aprobetxatu egin nahi ditut. Beharbada, Joko Olimpikoen ostean Barcelonan egon behar nukeela pentsatuko dut, baina ez naiz joango».

Taugresek ACBko liderraren kontra jokatzeko du Gasteizen

GASTEIZ

Taugres Baskoniak partidu zaila jokatzeko du gaur Araba kiroldegian, Estudiantes liderraren kontra. Gasteiztarrek izugarriko partidua egin zuten joan zen asteazkenean Tony Kukocen Benetton Treviso taldearen kontra, forma onean daudela erakutsiz. Gaur arerio indartsua izango dute aurrean, ACB ligan partidu bakarra galdu duen Estudiantes hain zuzen ere.

Miguel Angel Martinek zuzentzen duen taldeak bikain hasi zuen denboraldia, liga irabazteko faborito guztiak menperatuz. Baina azkenaldi honetan badirudi talde madrildarrak indar pixkat galdu duela. Aurreko ihardunaldian estu eta larri ibili ziren

Unicaja Ronda menperatzeko, teoriar bi taldeen artean alde handia dagoen arren. John Pinone estatubatuarrek ez du ondo jokatu azken partiduetan eta Estudiantesek asko nabaritu du hori. Herreros hegala da bere batz bestekoak mantendu dituen bakarra, beste guztien errendimendua asko jaitsi bait da.

Taugres aldiz gero eta hobeto dago. Herb Brownek bost gizon garrantzitsu zituen denboraldiaren hasieran eta horiek ziren hain zuzen ere partiduen pisua eramaten zutenak. Hala ere, ordezkoek gero eta garrantzi gehiago dute estatubatuarren eskemetan eta Taugresek asko nabaritu du. Estudiantesen kontra gogorlan egin beharko dute arabarrek, partidua irabazi nahi badute.

Caja Bilbao eta Askatuak garaipena lortu beharrean

RAMON BASALDUA / BILBO

Canarias eta Andorra taldeen kontra jokatzeko dute gaur Caja Bilbao eta Askatuak, lehen mailako ligako hamazortzigarren ihardunaldian. Bi euskal talde hauek garaipena beharrezkoa dutela esatea betiko leloa errepikatzea litzateke. Bi entrenatzaileek argi eta garbi dute liga amaitu orduko zenbat partidu irabazi behar dituzten igoerarako play-offetan parte hartzeko aukera ematen duten lehen zortzi postuetan sartu ahal izateko. Askatuak bederatzi partidu irabazi behar ditu. Caja Bilbao hamar.

Gorabehera handiak izan dira aste honetan Caja Bilbao taldean, Joe Kopicki betetzen ari den lan txararren ondorioz. Lehen mailako amerikar garestienak ez du gauza handirik

egin orain arte jokatu diren partiduetan eta biziki nabaritu du Caja Bilbao. Antonio Gomez Carrak zuzentzen duen taldeak bide gogorra egin beharko du ligako lehen fasea amaitu arte, geratzen diren hamahiru partiduetatik, hamar irabazi behar dituelako. Gaur Canarias irabaziz gero, sekulako morala eskuratuko lukete bilbotarrek geratzen diren partiduei aurre egiteko.

Askatuak, bere entrenatzaileen ustez dituen arazo psikologikoak gaudituz beharko ditu gaur Andorran kontra bertan jokatzeko duen partiduan. Josean Aldalurren mutilek bederatzi garaipen behar dituzte, eta geratzen diren hamahiru partidutik zazpi etxean jokatzeko ditu. Andorra bostgarren postuan sailkatuta dagoen arren, hasieran uste baino partidu gehiago galdu izan ditu.



Askatuak ahludutako taldearen aurka irabazteko parada ona du. VILLAGRAN

